

Lehenengo, herri bat osatu behar dugu

Deia, 1977-06-21.

Askotan ameslari bezala agertzen gara euskaldunok.

Eta batzutan izan ere bagara.

Euzkadiz, *egina eta heldua* dagoen zerbait balitz bezala aritzen gara hizketan, eta halatsu jokatu ohi dugu. Eta guk nahi dugun izate politiko hori, Euzkadi politikoa, aspaldi batzuk egiten hasi eta oraindik egiten eta osatzen ari garen zerbait da.

Begira joan den hauteskundeetan zer gertatu den.

Lehenengo, Nafarroa eta Araba autonomiaren ikuspegitik begiratzen baditugu, oraindik heldu gabe daude. Duten herri zentzuna ez da Euzkadiren autonomi politiko baten alde agertu. Eta beste aldera, ordea, nahiko agertu da. Nafarroan, propaganda politikoak eragin dionarekin mugitu da gehienbat, eta Araban, abertzale ez diren sozialistei esker salbatu da Frente Autonomikoa.

Gure sozialistak, sozialista euskaldunak, zertan dira?

Sozialista abertzaleak zatituak agertu dira, eta elkarren artean borrokan. Ez zen garaia horretarako. Eta honez gainera, edo horrexegatik, ez diete etorkinei aukerarik erakutsi, eta oso gutxi eraman dute berekin. Ezkerrak egin dutena, gainerako aukera abertzaleen bizkar egina izan da, eta inmigranteen botoak abertzale ez diren sozialisten alderdietara joan dira. PSOE-gana, hain zuzen. Hala, gure lur laburrak zabaltzeko asmotan sortuak izan diren alderdi sozialistak, lehenengo larretan geratu dira.

Eta gauza beldurgarri bat hasi da nabarmentzen: oraingo arteko bikotea, herritarra eta inmigrantea, ofizialdu egingo zaigu. Alegia, orain arte, nahi gabeko eta gure errurik gabeko herri zatiketa hau politika giroan finkatuko zaigu, eta abertzaleok alde batean eta etorkinak beste abertzale ez diren alderdietan finkatzeko arrisku larria sortuko zaigu.

Hau, Euzkadi egiteko bidean, oso kaltegarri da.

Orain dela berrogeita sei urtetik honantz bada gauza pozgarri bat, oraingo PSOE ez dela ordukoa. Euzkadik bidea, eta ona, egin duela alderdi espainol hontan. Eta, hala ere, ez da indar abertzale bat, ez gure Herria gure begiekin ikusten, eta aurrera bideko lanetan ez bagara etorkinei beste aukera hoberik emateko gauza, ez dugu Euzkadi egiteko egin ahal dugun guztia egingo, ez dugu Euzkadi guk ikusi eta nahi dugun bezala egiteko ahalegin oso egingo.

Eta, Nafarroa eta Arabako arazoa aipatu dugunez, Bizkaia eta Gipuzkoaz pentsatzen jartzen bagara, herri zatitu bat egiteko arriskuan gaude: alde batetik, bertako semeak, eta bestetik, kanpotik lanera eta bizibide bat lortzera etorri direnak. Eta batera eta bestera, Herri oso bat egitera beharturik gaudenak. Eta herritasuna galdu gabe, noski.

Honek kezkatu behar gaitu: herri oso eta bakar bat egin behar dugula. Euzkadi politikoa osatzeko bidean jarri behar garela. Eta hau ez dela gaur-biharko lana; lan luze eta neketsu eta burutsu bat dela. Behar dugula buruz jokatu. Autonomi bideak datozen bezala eta hartu ahal dugun bezala guztira hartzen joan behar dugula. Behar dugula

oraingo zirrikito honetatik gure Herriko Kultura sartu, gure herritasuna falta zaienei ezartzen ahalegindu. Askatasunean, baina gure Herriaren askatasunerako, berjabetasunerako.

Lan luze eta neketsua da hau.

Baina ez dago beste biderik, hainbeste amesten dugun Euzkadi, osatu eta indartu eta denentzat egingo badugu.